

ez
dok
hiru

PATXO TELERRIA





BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

PATXO TELLERIA

ez dok hiru

euskal musikaren benetako (h)istorioa



EGILEA
PATXO TELLERIA

ZUZENDARIA
JOKIN OREGI

AKTOREAK
**MIKEL MARTINEZ
PATXO TELLERIA**

MUSIKO-AKTOREAK
**ADRIÁN GARCÍA DE LOS OJOS
MARIA ARRIAGA TELLERIA
IVÁN ALLUE**

EDIZIO MUSIKALA
ADRIÁN GARCÍA DE LOS OJOS

JANTZIAK ETA ESZENOGRAFIA
AZEGINE URIGOITIA

ILEORDEAK
ANITZ

ESZENOGRAFIAREN ERAIKUNTZA
YON GIJON

ARGI DISEINUA
DAVID RODRIGUEZ

DISEINU GRAFIKOA
PARADOX

TEKNIKOAK
**DAVID RODRIGUEZ
OIER LANDA**

ARGAZKIAK
**GUILLERMO CASAS
PIO ORTIZ DE PINEDO**

EKOIZLEA
TARTEAN TEATROA

EKOIZPEN ARDURADUNAK
**ANE PIKAZA EREÑO
PIO ORTIZ DE PINEDO**

Aitzinsolasa

Patxo pianoa jotzen ari da.

Mikel agertzen da, panderoa buruan duela.

MIKEL.- Telleria doktorea, nire panderoa ikusi duzu?

Patxok panderoa ikusi du baina disimulatu egiten du.

PATXO.- Ez.

MIKEL.- Ordu bete daramat bila. Desesperatuta nago.

PATXO.- Eta zertarako behar duzu panderoa?

MIKEL.- Ah, ez dizut esan? Panderoa joko dut seminarioan. Ikasi egin dut!

PATXO.- Ze ondo!

MILEL.- Baina orain ez dut aurkitzen.

PATXO.- Lastima!

MIKEL.- Lastima, bai!

Mikel buruan duela konturatzen da.

MIKEL.- Hara... Hemen zegoen, buruan, hau burua nirea!
Ez duzu ikusi ala?

PATXO.- Kapela zela pentsatzen nuen.

MIKEL.- Begira.

Mikel jotzen hasten da, modu baldarrean.

MIKEL.- Eh? Eta talenturik ez nuela esaten zuten. Ze inpresio?

PATXO.- Ba... Progresatzen ari zara adekuadamentean.

MIKEL.- Bai, ezta? Eta badakizu zein den sekretua? Pasioa, Telleria doktorea. Pasioa. Zer nahi duzu jotzea, arin-arin bat, fandangoa, jota?

PATXO.- Gustora entzungo nuke edozer gauza, baina seminarioa aurkeztu behar dugu.

MIKEL.- Lastima!

PATXO.- Lastima!

Patxok panderoa kentzen dio, adeitasunez.

PATXO.- Arratsalde on, Errektore Jauna, Dekano, irakasle eta ikasle oro. "Ez dok Hiru" Unibertsitatearen lehenengo seminario On Line duzue hau. Internalizazioa dator. Munduko edozein ikaslek bere etxetik jarraitu ahal izango du kurtso hau. Seminario hau, Don Martinez Doktorearekin emateko ohorea daukat.

MIKEL.- Ohorea nirea da, Telleria Doktorea.

PATXO.- Ez, nirea.

MIKEL.- Nirea gehiago!!!

PATXO.- Ez, nirea gehiago. Gutxi egongo dira munduan euskal musika berak baino gehiago maite duenik.

MIKEL.- Pasio bat da. Pasioa.

PATXO.- Natura ez zen oso eskuzabala izan berarekin. Sudur gehiegi eman zion, eta belarri gutxiegi.

MIKEL.- Eta arritmikoa naiz, gainera.

PATXO.- Txikitari Lete, Laboa eta Lertxundiren aurrean kantatu zuen.

MIKEL.- Esperientzia zoragarria.

PATXO.- Horren ondoren, kanta bana konposatu zuten. Letek, "Zaude ixilik haurra". Mikel Laboak, "Thes egitea zilegi balitz". Eta Lertxundik, "Bukatu niz oin joaitea, ene opilaren egiterat, Pariserat baniazu".

MIKEL.- Akaso munduan pertsona bakarra egongo da euskal musika nik adina maite duena: Telleria doktorea.

PATXO.- Pasio bat da.

MIKEL.- EGBko lehenengo mailan triangelua jo zuen kurtso bukaerako festan. EGBko bigarren mailan triangelua jo zuen kurtso bukaerako festan. EGBko hirugarren mailan triangelua jo zuen kurtso bukaerako festan. EGBko laugarren mailan triangelua jo zuen kurtso bukaerako festan. EGBko bosgarren mailan geometria suspenditu eta ez zioten triangelua berriro jotzen utzi. Hogeitaz urte eman zituen Bilboko kontserbatorioan.

PATXO.- Ez nuen irteera topatzen.

MIKEL.- Lehengo urtean bere lehen diskoa kaleratu zuen eta Musikarien Elkarteak dirusari bat eskaini du hil ala bizirik harrapatzen duenari.

PATXO.- Musiko izaten utzi ez eta musikologo bihurtu gara.

MIKEL.- Nire tesi doktora inprentan dago. Pandero elektronikoa hamaseigarren mendean.

PATXO.- Nirea, txistuari buruz. “Txistua jo daiteke boxeo guanteekin?”

MIKEL.- Eta?

PATXO.- Zer?

MIKEL.- Jo daiteke? Guanteekin?

PATXO.- Ah! Ez dakit. Nik galderak egiten ditut. Ikasleak aurkitu behar ditu erantzunak.

MIKEL.- Ados. Haiek egin dezatela lana. Alfer kuadrilla horrek. Horretarako ordaintzen dute. Publikatuta?

PATXO.- Inprentan.

MIKEL.- Ze ondo. Segi, segi.

PATXO.- Gaurko saioan Seminarioaren ikasgai guztiak grabatuko ditugu.

MIKEL.- Guztiak?? Joder! Eta denak sartuko dira examen?

PATXO.- Martinez Doktorea, irakaslea zara!

MIKEL.- Egia! Eskerrak!

PATXO.- Milesker esperientzia berri honen lekuko izateagatik. Poza ematen du hainbeste ikasle Euskal Musika-rekin interesatuta ikusteak.

MIKEL.- Ez daude interesatuta. Kredituak ematen dizkielako etorri dira.

PATXO.- Ah... Tira, dena den, entzun eta ikasi.

MIKEL.- Beno, ikasi, ikasi... Ez egin ilusio handirik, hau unibertsitate bat da da...

PATXO.- Seminarioan parte hartuko duten musikariak aurkeztu nahi dizkizuegu. Aurrera, Iban Allue, Maria Arriaga eta Adrian Garcia de los Ojos!

Musikoak sartzen dira.

PATXO.- Beno... Kamarak prest daude? Soinua? Grabatzen hasiko gara?

OFF.- Dena ok. Nahi duzuenean.

PATXO.- Ongi da, Martinez Doktorea...

MIKEL.- Telleria Doktorea...

1. ikasgaia: tesiaren aurkezpena

PATXO.- “Ez dok Hiru” Unibertsitateak aurkezten du Euskal Musikaren Benetako Historia. Unibertsitatearen izenean, Agur Jaunak...

Mikelek eteten du diskurtsoa, kantuan.

MIKEL.- Agur Jaunak, jaunak agur...

PATXO.- ...eta andereak...

MIKEL.- Agur agur, andere askatasuna...

PATXO.- Agur...

MIKEL.- Agur Zuberoa, bazter guztietako xokorik eierrena...

PATXO.- ...guztioi...

MIKEL.- Agur, zuri, agur hari, agur ikusle guztiei.

Patxo urduri jartzen ari da.

PATXO.- Voltairek esan zuenez, Pirinioen alde bietan dantzatzen dabilen herria da euskalduna.

MIKEL. - *Hankak arinak eta
burua arinago.
Dantzan hobeki daki
arto jorran baino.
ai, oi, ei, arto jorran baino...*

Patxo gero eta moskeatuago.

PATXO. - Euskalduna kantuz bizi da.

MIKEL. - *Kantuz sortu naiz eta kantuz naiz bizi...*

PATXO. - Euskara eta musika loturik daude...

MIKEL. - *Gogorki loturik daude...*

PATXO. - Hala gertatu da gure historian zehar...

MIKEL. - *Gure historian zehar,
zenbat malko ta ezbehar...*

PATXO. - Eta hala gertatzen da gaur...

MIKEL. - *Gaur goizean jeiki naiz suerte onean...*

PATXO. - Zertan zabilta?

MIKEL. - Zure diskurtsoa azpimarratzen. Alegia, euskaldunoi musika barrutik ateratzen zaigula nahi gabe.

PATXO. - Ez duzu azpimarratu beharrik. Utziko didazu...?

MIKEL. - Telleria doktorea, umore senik ez duzula ikusten dut. Eta umorea pedagogikoa da. Baina segi, segi.

PATXO. - Eskerrik asko.

MIKEL. - *Eskerrik asko jauna,
bihotz bihotzetik...*

Mikel molestatzen ari dela konturatzen da.

MIKEL. - Barkatu! Ez dut apropos egiten, erreflexu kondizionatua da. Euskalduna naizenez...

PATXO. - Ezin duzu zeure hiperaktibotasuna kontrolatu?

MIKEL. - Jada ez naiz hiperaktiboa! Medikatuta nago! Gaingiduta daukat!

PATXO. - Ea egia den.

PATXO. - Esaten ari nintzen bezala, euskalduna kantazalea da. Zertarako? *Alegratzeko triste dagoen gutzia.*

Patxok ez du kantatzen, kanten letrak esan egiten ditu, Mikel probokatzeko. Mikelek kantatzeko gogoari eusten dio kostata.

PATXO. - Euskaldunarentzat *berdin dira astea eta jaia, lana bihurtzen dugu kantatzeko gaia.*

Mikelek aguantatzen du, kostata.

PATXO. - Beti kantuan. *Kalean gora kalean behera, kalean gora, kalean behera...* Edozein tokitan. *Goiko mendian... Itxasontzi baten... ...aldapeko sagarraren adarraren puntan...* Euskalduna beti dago prest ateratzeko *dantzara, plazara, dantzara... ...edozein herriko jaientan.* Zergatik? Sentiberak gara? *Azken finean gizaki hutsak gara...?* Non dago misterio honen erantzuna? *Non hago? Ze larretan? Zergatik da euskalduna kantazalea? Zergatik, zergatik, zergatik?*

Mikelek ezin du aguantatu, eta kantatzen hasten da.

MIKEL. - *Zergatiuuuuuuuuuik...*

PATXO. - Seminario honetan frogatuko dugu gure tesia: euskaldunok musika barru-barruan daramagu. Ongi etorriak, beraz!

2. ikasgaia: Izturitzeko txirula

PATXO.- Nor da euskal musikaren historiako pertsonarik inportanteena?

MIKEL.- Laboa! Iparragirre! Maurizia! Ebaristo, La Polla Recorsdekoa?

PATXO.- Ez dakigu haren izena. Baina berak sortu zuen lehenengo musika tresna. Flauta bat.

Flauta paleolitiko bat ekartzen dute eszenatokira urna batean.

PATXO.- Izturitzeko kobazuloan aurkitu zen. Baionako Arkeologia museoari esker, hemen duzue. Milesker Baionako...

Musikariek jotzen dute "Eskerrik asko jauna".

MIKEL.- *Eskerrik asko Jauna, bihotz-bihotzetik...*

PATXO.- Hegazti baten hegoaren hezur batez egina dago.

MIKEL.- Hegazti baten hezurra???

PATXO.- Ez zenekien, ala?

MIKEL.- Bai! (...) Bai... Harridura adierazi dut ikasleen arreta pizteko. Errekurtso pedagogiko bat.

PATXO.- Putre baten hegoaren kubitoa, hain zuzen. Ezin dugu imajinatu ze kanta joko zen flauta honekin...

MIKEL.- "Hegoak ebaki". Putre gaixoa! Hegorik gabe, ez zen gehiago putrea izango. Eta nik putrea nuen maite.

PATXO.- Arkeologo askoren ustez, hau munduko tresnarik zaharrena da.

MIKEL.- "Arkeologo askoren ustez...!" Zenbat arkeologo? Datu zientifikoak behar ditugu, esate baterako, "nueve

de cada diez arqueólogos recomiendan la flauta de Izturitz".

PATXO.- Karbono 14 froga egin ostean, gure lehenengo flauta honen adina kalkulatu da. 30.000 urte bete berriak ditu!

Musikariek "Zorionak" jotzen dute.

MIKEL.- *Zorionak, zure urtebetetzean...!!* Barkatu, segi.

PATXO.- Nor izan zen, duela 30.000 urte, lehenengo tresna musikala asmatu zuen pertsona? Ez dakigu.

MIKEL.- Ander. (...) Ander Tal.

PATXO.- Nolako musika egiten zuten paleolitikoan?

MIKEL.- Ez naiz gogoratzen, oso gaztea nintzen.

PATXO.- Nola asmatu zuen gizaki horrek flauta? Nahi gabe jo zuen, alegiako astoaren moduan? Mirakulu bat izan zen? Hona hemen kondairak dioena:

Musikoek "Teologia, ideologia" jotzen dute.

MUSIKARIAK.- *Zeru altuan zegoen Jaunak
egina zuen mundua.
Sei egunetan, izerdi patsez
moldatu eta ondua.
Zazpigarrena deskantsatzia
atera zuen kontua.
Izadiaren igeltserua
ez zen batere tontua.*

Organo akorde zeremonioso bat entzuten dugu.

PATXO.- Hasieran, paradisua zegoen. Eta ona zen. Paradisuan gizaseme bat bizi zen.

MIKEL.- Ander Tal.

PATXO.- Paradisua isila zen, eta isiltasuna ona zen arimarentzat.

MIKEL.- Ah, ze isiltasuna! Ze ona arimarentzat! Zelako bakea! Zelako lasaitasuna!

PATXO.- Eta gizasemeak ikusi zuen bakea ona zela, eta lasaitasuna ona zela, eta zoriontsu bizi zen paradisuari. Orduan jainkoak txoria sortu zuen, eta txoriak kantatzen zuen, eta Jainkoak ikusi zuen ona zela.

Txirula batez, txori baten txioa.

MIKEL.- Ze soinu polita!

PATXO.- Baina Jainkoak lege bat ezarri zion gizasemeari.

JAINKOA.- Gizonari hitza eman diot, eta txoriari musika. Gizona txoriaren moduan kantatzera inoiz ausartzen bada, paradisuatik bidaliko dut!

MIKEL.- Ok, jauna.

PATXO.- Zoriontsu bizi ziren denak paradisuari. Gizasemea hizketan eta txoria kantari. Bakean.

MIKEL.- Zelako bakea!

PATXO.- Baina egun batez, gizakumeak sentimendu berri eta bortitz bat ezagutu zuen: inbidia!

MIKEL.- *Nork kantatuko ote du soinutxu hori?* Pssst... Txoritxua, zatoz! Txiruliruli, txirulirula!!

Mikelek txoria harrapatu eta hil egiten du.

MIKEL.- Nola jotzen da hau?

JAINKOA.- Kontuz, gizona!!! Txorien musika egiten baduzu, kondenatua izango zara betirako!!!

PATXO.- Une hartan, lurpeko haitzulo sakonenetik, sugea irten zen! Eta esan zion:

SUGEA.- Hegoak ebaki txoriari, eta musika zurea izango da, ez dizu alde egingo.

PATXO.- Euskaldunak hegoak ebaki zizkion hegaztiari, eta hezurra atera.

MIKEL.- Eta orain zer?

PATXO.- Eta sugeak musikaren misterioa azaldu zion.

Sugeak kantatzen du. (Melodia: "El coro de doctores", "El rey que rabió" zarzuelakoa)

SUGEA.- *Hodi sonora kolumna gaseoso bat da
Non tonu desberdin asko sortu daitezkeen
hodiaren luzeeraren arabera.
Tonu bakoitzak badauka
bere bibrazioa.*

MIKEL.- Ez dut piperrik ulertu!

SUGEA.- *Eskalak baditu zazpi tonu bete,
eta gero beste zenbait semitonu,
bemol, sostenitu eta semikortxeak.
Nota guzti horiekin musika sortzen da.
Putz egin besterik ez duzu behar,
do re mi fa sol do do si la sol fa.*

MIKEL.- Ah, orain bai!

Mikelek putz egiten du.

PATXO.- Eta musika sortu zen!!

Musikariek "Also sprach zarathustra"-ren hasiera jotzen dute.

3. ikasgaia: euskal tresna tradizionalak

PATXO.- Ikasgai honetan, euskal musika tresna tradizionalak aztertuko ditugu.

MIKEL.- Lehenengoa, txistua izan zen, hasierako hezurrezko flauta xume hortatik garatua.

Txistua entzuten da. Biribilketa bat.

MIKEL.- Musikologo askok ikutu falikoa aurkitu diote tresnari, baina baieztapen horrek ez dauka batere funts zientifikorik.

PATXO.- Txistu kontuetan, tamainuak badu bere inportantzia. Txistu txikiari xirula deitzen zaio

Txistu eta xirula jotzen dute batera.

PATXO.- Eta handiari, berriz, silbotea.

Silbotea gehitzen zaio, hirukotea osatuz.

MIKEL.- Silbote gutxi dago. Silbote baten jabea dela esaten duen jende askok, txistu normal bat izaten du gehiengotan.

PATXO.- Edo xirula xixtrin bat.

MIKEL.- Txistua gure tresna tradizionalik ezagunena da, baina ez bakarra.

PATXO.- Adarra jotzen ere badakigu.

Alboka entzuten dugu. Fandango bat.

MIKEL.- Ze arraio...??? Ah, adar hori! Nola du izena...?

PATXO.- Alboka.

MIKEL.- Mingainaren alboan neukan.

PATXO.- Konturatzen bazarete, alboka joleak ez dio putz egiteari uzten.

MIKEL.- Aiba, egia da!

PATXO.- Ez zenekien?

MIKEL.- Harridura pedagogikoa da.

PATXO.- Albokaria orduak eta orduak egon daiteke putz eta putz egiten.

MIKEL.- (Albokajoleari) Hartu arnasa, motel!

PATXO.- Alboka estridentea iruditu bazaizue, prestatu zaitzte hurrengoa entzuteko. Dultzaina, edo gaita.

Patxok algodoiak ipintzen ditu belarrietan.

MIKEL.- Zertarako ipini dituzu belarrietan...?

PATXO.- Zer? Ez dizut entzuten!

Dultzaina jotzen hasten da. Jota bat.

Patxo, Mikel eta gainontzeko musikariak eszenatokitik irtetera dira, zaratagatik. Gaita jolea bakarrik geratzen da. Bukatzen duenean, besteak sartzen dira berriro.

PATXO.- Perkusioa oso inportantea da gure musikan. Erritmoa. Euskal musikak badu erritmo propio bat, zortzikoa: ta TAN - ta TAN - TAN - TAN - TAN. Eta perkusio tresna ugari asmatu ditugu. Zaharrena, txalaparta.

Txalaparta jotzen dute. Zortzikoaren erritmoa jarraituz: ta TAN - ta TAN - TAN - TAN - TAN.

Pixkanaka, beste perkusio tresnak gehitzen zaizkio.

MUSIKARI 1.- Atabala.

MUSIKARI 2.- Panderoa.

MUSIKARI 3.- Tttun ttuna.

Perkusio instrumentu guztiak batera entzuten ditugu, zortzikoaren erritmoan.

PATXO.- Perkusio tresna denek baturik jotzen dutenean, hau gertatzen da:

DENAK.- Batukada!!!

Denek zortzikoaren erritmoarekin:

PATXO ETA MIKEL.- *Hauek-dira-euskal herriak
ditu-en tresna-zahar guztiak.
Instru- mentu-apal hauekin
ospa- tu dira-festa handiak.
Gure bir-aitona-ta amonak
aurkitu-zuten-ezkongai,
ta ar-basoen-enbor beretik,
sortu-ko ginen-gero bestiak.*

4. ikasgaia: Erdi Aroko musika: baladak

PATXO.- Erdi Aroko musikaz mintzatuko gara orain. Musika errebeldiatik sortu zen. Ondorioz, gure musika, oro har, errebeldia izan da beti, boterearen kontrakoa. Erdi Aroko musika, horren adibide ederra da.

MIKEL.- Entzun dezagun segidan, 1135ean, Zugarramurdin, Vianako Printzeak eta Zugarramurdiko herriak Inkisidore Jaunari eskaini zioten kanta.

PATXO.- Martinez doktoreak egingo du Vianako Printzearena, musikariak Zugarramurdiko herria izango dira eta ni Inkisidore jaun txit gorena.

Musika hasten da. "Perutxoren Kanta" melodiarekin.

KORUA.- *Inquisidore jaun txit gorena,*

MIKEL.- *Zein ederra den, zein handia,*

KORUA.- *andreak sutara botatzea,*

MIKEL.- *zeregin ondrau eta noblia.*

KORUA.- *Lanbide itsusi eta zikina*

MIKEKL.- *benetan da sorginkeria.*

KORUA.- *Jakin zazue, sorginak berez*

MIKEL.- *infernuko piztiak dira.*

KORUA.- *Ez du existitzen inon ere*

MIKEL.- *gizaseme gaiztoagorik.*

KORUA.- *Nire gogoa betetzekotan*

MIKEL.- *erraustuko nituzke errotik.*

KORUA.- *Su geldoan erreko nituzke*

MIKEL.- *sufritu dezaten gogotik.*

KORUA.- *Apezpiku ta noble jendea,*

MIKEL.- *egun ona opa dizuet nik.*

KORUA.- *Ta inkisidore jaun gorena,*

MIKEL.- *ez dago zu baino handiagorik.*

Kanta bukatu da.

PATXO.- Zer iruditzen? Kanta errebeldia da?

MIKEL.- Ez du ematen, ez?

PATXO.- Ah..., lagunak, Erdi Arokoak agian gutxiago duxatuko ziren, baina tontoak ez ziren.

MIKEL.- Vianako Printzearen bertsoak isilarazi egin zituzten, batek daki nola.

PATXO.- Bere mikrofonoa muteatuz. Entzun dezagun.

Musika hasten da berriro. Baina oraingoan, korua baino ez dugu entzuten.

KORUA.- *Andreak sutara botatzea,
lanbide itsusi eta zikina.
Jakin zazue, sorginak berez,
ez du existitzen inon ere.
Nire gogoa betetzetzekotan,
su geldoan erreko nituzke
apezpiku ta noble jendea,
ta inkisidore jaun gorena.*

Kanta bukatu da.

MIKEL.- Beharbada baten batek pentsatuko du hau ezinezkoa dela, alegia, Erdi Aroan ez zegoela mikrofonorik.

PATXO.- Norbaitek hala pentsatzen badu, igo dadila hona eta bota dezala teoria hobeago bat.

Zain geratzen dira.

PATXO.- Inor ez, beraz, aprobatuta geratzen da mikrofonoaren teoria.

MIKEL.- Eta sexuari buruz? Zer uste duzue, Erdi Arokoak errebeldeak zirela sexu kontuan ere?

PATXO.- Ba eztabaidak daude. Jendea ez da ados jartzen auzi horretan. Jarri dezagun adibide bat eta zuek atera ondorioa.

MIKEL.- Aialako bailaran Isabelatxu izeneko andre gazte bat bizi zen, bere senarrarekin. 1267 urteko maiatzean,

senarra bidaia luze bat egitera joan zen, Isabelatxu bakar-bakarrik utziaz. Hau da gertakari honi buruz konposatu zen balada.

Musika hasten da. "Isabelatxu" doinuarekin. Musikariek korua egiten dute eta Mikelek eta Patxok bukatzen dute estrofa bakoitza.

KORUA.- *Senarra joan da urrutira ta
Isabelatxu gaixoa
etxean dago bakar-bakarrik*

PATXO ETA MIKEL.- *hasperen eta aieneka*

KORUA.- *Gizonik gabe, ahaidetik gabe,
bakardade gordinean,
etxea handi geratzen zaio,*

PATXO ETA MIKEL.- *orain badabil penetan*

KORUA.- *Kontsolatzera joan beharko zaio
fraide zintzo bat etxera,
zeren tristura eta samina*

PATXO ETA MIKEL.- *sentitzen du barrenean*

KORUA.- *Fraidea joan da prestu eta bizkor
astotxo baten gainean.
Heldu da azkenik, hamalau legoa*

PATXO ETA MIKEL.- *korritu eta ondoren*

KORUA.- *Iritsi eta, jo du fraideak
Isabelatxun atean.
Atea ireki eta frailea*

PATXO ETA MIKEL.- *barreneraino sartu da*

KORUA.- *Fraidea ikusi ta Isabelatxu
bihotz-bihotzez poztu da.
Andere gaixoari gogoa*

PATXO ETA MIKEL.- *berehala alztatu zaio*

KORUA.- *Otoitz egiten aritu dira,
errosario santua
hainbat alditan errepikatuz,*

PATXO ETA MIKEL. - *guztira bospasei aldiz*

Une honetan, kanta betean, Patxo eta Mikeli kantaren partitura-ko orriak erortzen zaizkie lurrera. Orriak jasotzen dituzte, baina nahastuta geratu dira.

KORUA.- *Bukatu eta, Isabelatxuk,
eskuan musu eman dio.
Eta gure fraile zintzoari*

PATXO ETA MIKEL.- *berehala alztatu zaio*

KORUA.- *Fraidea jator eta esker onez*

PATXO ETA MIKEL.- *barreneraino sartu da*

KORUA.- *Isabelatxuk, kontsolaturik,*

PATXO ETA MIKEL.- *sentitzen du barrenean*

KORUA.- *Lehen tristerik zegoen baina*

PATXO ETA MIKEL.- *orain badabil penetan*

KORUA.- *Fraidea une hortan badoa*

PATXO ETA MIKEL.- *hasperen eta aieneka*

KORUA.- *Kanpora irten da izerdi patsez*

PATXO ETA MIKEL. - *korritu eta ondoren*

KORUA.- *Bihar berriro egingo dute*

PATXO ETA MIKEL.- *guztira bospasei aldiz.*

5. ikasgaia: euskal musika barrokoa

MIKEL.- Hitz egin dezagun orain euskal musika klasikoari buruz.

PATXO.- Euskal klasikoak entzun eta "Lau urtaroak" lan zoragarria datorrit burura: uda, udazkena, negua... eta batez ere Udaberria ederra. Antonio Eguraldi!

MIKEL.- Eta nola ez, kanon inmortalaren egilea: Pátxi-beltz.

PATXO.- Opera konpositore unibertsala: Giuseppe Berdin.

MIKEL.- Pianorako nokturno hunkigarrien egilea: Frederik Txomin.

PATXO.- Tristuraren musikoa: Gustav Malerusa.

MIKEL.- Eta nola ez, hiru handiak:

PATXO.- Juan Sebastian, Ludwig eta eta Wolfgang Amadeus. Zaharrena Juan Sebastian zen, Juan Sebastian Bajeñetxea. Ez zuen arrakasta lortu bere garaian. Musika zaila omen zen berea.

MIKEL.- Eta bada. Niri, Juan Sebastian... Bah! Niretzat hobe da Ludwig.

PATXO.- Beti. Ludwig Van Betihoben.

MIKEL.- Wolfgang Amadeus ume prodigioa omen zen. Eta baita oso itsusia are.

PATXO.- Segur aski askok bere ezizenagatik ezagutuko duzue: Wolfgang Amadeus Motza.

MIKEL.- Segidan Juan Sebastian Bajenetxearen Tocata eta Fuga joko dugu, txistu, txistu, danbolin eta... pandero-rako!

PATXO.- Pandero???

Mikelek panderoa hartzen du, bestean harridurarako.

MIKEL.- Moldaketa prestatu dut.

Mikel panderoa jotzen hasten da, modu traketsean. Nahasten da.

MIKEL.- Ai! Itxoin, berriz hasiko naiz.

Beste bitan hasten da, musikoen pazientzia agortuz.

PATXO.- Martinez doktorea...

MIKEL.- Ez dakit zer gertatzen zaidan, oso ondo prestatuta daukat.

PATXO.- Bai, oso ondo ari zara, baina...

MIKEL.- Atzamarrak hotzak ditut. Berotu behar ditut.

PATXO.- Joan zaitetz berotzera, bai. Joan lasai, gu hemen egongo gara, zain.

Mikel kanpora doa.

PATXO.- Jaun-andreak, Juan Sebastian Bajenetxearen Tocata eta Fuga re minorrean, panderorik gabe.

Musikariek Johan Sebastian Bach-en Tocata eta fuga re minorrean, BWV 565 jotzen dute.

6. ikasgaia: Iparragirre eta Xenpelar

Mikel sartzen da panderoarekin.

MIKEL.- Tocata jo duzue jada?

Patxok panderoa kentzen dio.

PATXO.- Bai. (...) Hurrengo mendeetan euskaldunek kantari jarraitu zuten, baina ez zaigu arrastorik geratu. Orduko grabazioak kalitate txarrekoak ziren. Analogikoak. XIX. mendean euskal musikaren munstro bat jaio zen.

MIKEL.- Godzilla?

PATXO.- Iparragirre. Euskal Herriak ezagutu duen lehen artista petoa: bohemioa, abenturazalea, aktorea eta musikaria

MIKEL.- Eta bertsolaria! Baina bertsolari desberdina, eskoladuna. Xenpelarrek, bertsolari herrikoi eskolaga-beak, desafioa bota zion Iparragirreri. Iparragirrek ez zuen erantzun. Ez zegoen potrorik.

PATXO.- Erantzun zion, bere moduan, bere kantekin.

Xenpelar (Mikel) eta Iparragirre (Patxo) sagardotegi batean. Musikariek kanta bakoitzari dagokion melodia jotzen dute:

MIKEL. - *Iparragirre abila dela askori diot aditzen*

PATXO. - *Euskaldunen artean guztiz maitatua*

MIKEL. - *Eskola ona eta musika, hori horiekin serbitzen*

PATXO.- *Gazte gaztetatikan herritik kanpora
estranjeri aldean pasa det denbora*

MIKEL.- *Ni ez nauzu ibiltzen
kantuz dirua biltzen
komeriante moduan*

PATXO.- *Egun batean pobre
beste batez jauna
Kantari pasatzen det
nik beti eguna*

MIKEL.- *Debalde festa preparatzen det
gogoan dedan orduan.*

PATXO.- *Biba Rioja, biba Naparra,
hustu dezagun pitxarra*

MIKEL.- *Eskola ona eta musika
bertsolaria gainera*

PATXO.- *Ezkongaietan zerbait banintzen,
ezkondu eta ezer ez*

MIKEL.- *Gu ere zerbait izango gera
hola hornitzen bagera*

PATXO.- *Gitarra zartxo bat da neretzat laguna
horrela ibiltzen da artista euskalduna*

MIKEL.- *Atoz gure kalera
baserritar legera,
musika horiek utzita*

PATXO.- *Hendaian nago zoraturikan,
zabal-zabalik begiak*

MIKEL.- *Errenterian bizi naiz eta
egin zaidazu bisita*

PATXO.- *Ardo fina ta jateko ona
jartzen badute gaur ugari*

Denek "Glu Glu" kantaren leloa kantatzen dute. Iparragirrek eta Xenpelarrek topa egiten dute euren basoekin.

DENAK.- *Glu lu glu glu...*

7. ikasgaia: kantautorea eta Ez Dok Amairu

PATXO.- Iparragirre aitzindaria izan zen euskal musikan.
Bera izan zen gure lehenengo kantautorea.

MIKEL.- Hitz hori entzun eta segidan, 60ko belaunaldi mitikoaz gogoratzen gara: "Ez dok Amairu". Laboa, Lete, Lertxundi, Artze anaiak...

PATXO.- Diktaturapean zeuden eta mezuak metaforen bi-dez esan behar zituzten, zentsura saihesteko.

MIKEL.- Hirurogeigarren hamarkadan gaude.

PATXO.- Ni garai hartako kantautore bat naiz.

MIKEL.- Ni bere lagun bat. Bere kanta berri bat erakutsi dit, ea ze inpresio.

Patxok jotzen du kanta, gitarraz.

PATXO.- *Mendian lahar artean,
aurkitzen da loretxo bat,
aurrean umetxo bat
loretxoari begira.*

MIKEL.- Ze polita. Loreak maite ditut!

PATXO.- Beno, lorea metafora bat da, ez da berez lorea.

MIKEL.- Ah, ez? Zer da?

PATXO.- Herria.

MIKEL.- Herria? Lore asko daukan herria? Ze herri da hori?

PATXO.- Euskal Herria!

MIKEL.- Euskal Herria? Ze metafora klase da hori? Euskal Herriak ez dauka lore baten itxurarik, inondik inora. Ez da ulertzen.

PATXO.- Baina...

MIKEL.- Ez da ulertzen. Aldatu behar duzu hori.

PATXO.- Ondo da.

Patxok jotzen du kanta, gitarraz.

PATXO.- *Mendian lahar artean,
aurkitzen da loretxo bat,
aurrean umetxo bat
Euskal Herriari begira.*

MIKEL.- Horrela askoz hobeto ulertzen da. Baina hala ere, Euskal Herria ez dago lahar artean. Paisaje ederrak ditugu.

PATXO.- Beste metafora bat da!!

MIKEL.- Ah! Eta zer esan nahi du?

PATXO.- Euskal Herria zapaldua dagoela askatasunik gabeko eremu latz batean.

MIKEL.- Hori askoz argiago dago.

PATXO.- Baina bestea...

MIKEL.- Ez da ulertzen.

PATXO.- Ondo da.

Patxok jotzen du kanta, gitarraz.

PATXO.- *Askatasunik gabeko eremu latz batean aurkitzen da euskal herri zapaldua. Aurrean umetxo bat Euskal herri zapalduari begira. Umetxoak ikusirik, Euskal Herri zapaldua ezin bizirik, arantzak kendu nahi dizkio, bizi berri...*

MIKEL.- Alto, alto. "Arantzak?" Euskal Herriak arantzak ditu?

PATXO.- Beste metafora bat da. Arantzak kentzeak diktadura frankistaren errepresiotik askatzea esan nahi du.

MIKEL.- Eta zergatik ez duzu argi eta garbi esaten?

Patxok jotzen du kanta, gitarraz.

PATXO.- *Askatasunik gabeko eremu latz batean aurkitzen da euskal herri zapaldua. Aurrean umetxo bat Euskal herri zapalduari begira. Umetxoak ikusirik, Euskal Herri zapaldua ezin bizirik, diktadura frankistaren errepresiotik askatu nahi du, etorkizun politiko itzaropentsu bat eman.*

MIKEL.- Hobeto. Dena den, ume batek ezin du Euskal Herria askatu. Handia geratzen zaio enpresa hori. Ez da sinesgarria.

PATXO.- Umea metafora bat da!

MIKEL.- Ta zer da umea?

PATXO.- Kontzientzia politikoa daukan euskal hiritar bat!!!

MIKEL.- Joder, alde ederra. Eta nola nahi duzu jendeak ulertzea...?

Patxok jotzen du kanta, gitarraz.

PATXO.- *Askatasunik gabeko eremu latz batean aurkitzen da euskal herri zapaldua. Aurrean kontzientzia politikoa daukan euskal hiritar bat, Euskal herri zapalduari begira. Kontzientzia politikoa daukan euskal hiritarrak ikusirik, Euskal Herri zapaldua ezin bizirik, diktadura frankistaren errepresiotik askatu nahi du, etorkizun politiko itxaropentsu bat eman. Orduan izango baitu askatasuna eta burujabetasuna. Orduan emango baitu ugari bere fruitua.*

MIKEL.- Horrela bai! Horrela oso ondo ulertzen da. Dena den... letra gehiegi, ezta?

Polizia sirena bat entzuten da.

MIKEL.- Hori zer da, polizia?

PATXO.- Ez, poliziaren metafora bat!!!

Musikariek "Lorettoa" kantaren bertasio rokeroa jotzen dute.

8. ikasgaia: zentsura politikoa

PATXO.- Denborarekin metafora politikoak indarra galduz joan ziren.

MIKEL.- Bai, poliziak laster ikasi zuen metafora guztien esanahia.

PATXO.- Txoria?

MIKEL.- Gizona.

PATXO.- Kaiola?

MIKEL.- Kartzela.

PATXO.- Arantzak?

MIKEL.- Errepresioa.

PATXO.- Haizea?

MIKEL.- Askatasuna.

PATXO.- Aitorren hizkuntz zaharra?

MIKEL.- Euskara.

PATXO.- Arbasonen baratza?

MIKEL.- Euskal Herria.

PATXO.- *Soineko zuriz jantzia, buruan orlegi, bihotzean sua?*

MIKEL.- Zuri, berde eta gorria: ikurrina.

PATXO.- Denak ikasi zituzten. Eta ez zen erraza, bazegoen metafora bat ideia bakoitzerako. Esate baterako: armak non gordetzen ziren esateko:

MIKEL.- *Goizuetan bada gizon bat deritzen zaiona Trabuko.*

PATXO.- Etxean badaukat tokia bi iheslarirentzako eta ganbaran beste baterako:

MIKEL.- *Eperrak ba ditüzü bere bi hegialak, bai eta biurun gainin koçardã eier bat.*

PATXO.- Mugalaria salbo iritsi da etxera:

MIKEL.- *Haurtxo polita sehaskan dago.*

PATXO.- Zita klandestinoak egiteko:

MIKEL.- *Goizian argi hastian, ene leiho hegian.*

PATXO.- Borroka politikoa edo armatuaren arteko ezta-baidarako:

MIKEL.- *Ez dakit zer daukagun, bake ala gerra, baina nik badaezpada egin dut puzkerra.*

PATXO.- Errefuxiatuen agur kanta:

MIKEL.- *Itxasontzi baten euskalerritik kanpora naramate eta ez dakit nora.*

PATXO.- Salatzaileak salatzeko:

MIKEL.- *Santurik ez laiteke fidatu zurekin.*

PATXO.- Poliziak metafora guztiak ezagutzen zituen. Nola konponduko ziren zentsura saihesteko?

MIKEL.- Euskara berri bat asmatzen, euskara kriptiko bat, euskara klandestino bat asmatzen.

Tema musikala hasten da. Musikariek txandaka joko dute kanta bakoitza, eta Mikelek eta Patxok lagundu kantatzen.

MUSIKARI 1.- *Aire txun txikitun, aire txun laile.*

MUSIKARI 2.- *Urrala, birula, birula, birula, birulena, Urrala, birula, birula, birula, birulon!*

MUSIKARI 3.- *Txantxiribi txantxiribi dabiltzanean*

MUSIKARI 1.- *Etai lelori bailelo, leloa zarai leloa*

MUSIKARI 2.- *Ala kinkiri ala kunkuru, ala kinkiri kunkuru kanta*

MUSIKARI 3.- *Axun kla kla asun klakla josepantoni bruji.*

KORUA.- *Alaken, ken ken. Ala pikula tunbaile. Errespun dula pikula tunba, Jesus Maria jainkoa zen.*

PATXO.- Baina maisurik handiena, hizkuntza ulertezinaren, hizkuntza klandestinoaren erregea...

MIKEL.- Mikel Laboa.

Mikel Laboaren Baga Biga Higa-ren "lekeitioa" kantatzen dute. Mikelek panderoa jo nahi du, baina ezkutatu egiten diote.

MUSIKARIAK.- *Sumieitsob meiosmai enaie elei*

niesmaien maioatzen maiei

diats mai mekei neikoei

subiots nitsi aiiskiei saieiei

neigi ei mai eini eiei

fots mai eini ei sisiei emi enei

iei sen mai ei seiei

aninsi ei mei oisi ei mei ei

ut mei ei nei einitieiei

meigiei en enei sei emienei

unieiei mei ei tei da anai bai teida aitsiei bei ta eisimeiei

Azkenean Mikelek panderoa aurkitu eta azkeneko konpasa jo-tzen du.

MIKEL.- Ikimilikiliklik!

9. ikasgaia: txoriak euskal musikan

PATXO.- Garai hartan, euskal musikak bazeukan gai nagusi bat.

MIKEL.- Askatasuna.

PATXO.- Ez.

MIKEL.- Euskara? Justizia? Demokrazia? Burujabetasuna?

PATXO.- Txoriak.

MIKEL.- Zer?

PATXO.- Ez zara konturatu zenbat txori agertzen diren gure kantetan?

MIKEL.- Ez da hainbesterako izango.

PATXO.- Bost euro baietz dozena bat kanta bilatu oraintxe bertan, txoriak aipatzen dituztenak!

MIKEL.- Ezetz nik!

MUSIKARIAK.- Ea ba... *Txori Erresiñula, udan da kantari!*

MIKEL.- Bat!

MUSIKARIAK.- *Aldapeko sagarraren adarraren puntan txoria zegoen kantari...*

MIKEL.- Bi!

MUSIKARIAK.- *Txori eierra, hain alegera...*

MIKEL.- Hiru!

MUSIKARIAK.- *Txori txikia nintzelarik esan zidaten...*

MIKEL.- Lau!

MUSIKARIAK.- *Horma zahar arrailduetan, txoriak dira kantatzen.*

MIKEL.- Bost!

MUSIKARIAK.- *Euskal Herriko tristura soineko beltzen joskura txori negartiz bete da eta umorez hustu da.*

MIKEL.- Sei!

MUSIKARIAK.- *Txoria baino ere arinago dantzan. Huraxe bai polita, han politik bazan.*

MIKEL.- Zazpi!

MUSIKARIAK.- *Nik zu zaitut, maiteago txoriak bere kumeak baino.*

MIKEL.- Zortzi!

MUSIKARIAK.- *Xori eier bat atzaman duzu Paubeko seroren komentin.*

MIKEL.- Bederatzi!

MUSIKARIAK.- *Iduri gu generala kaiola batean jarritako txoriak fusilen menpean. Ez, ez dut nahi, ez ez ez...*

MIKEL.- Hamar!

MUSIKARIAK.- *Eta nik eta nik... Txoria nuen maite!*

MIKEL.- Hamaika!! Hamaika besterik ez. Eman bost euro.

PATXO.- Itxoin! Besteren bat egon behar du.

MUSIKARIAK.- *Uso zuria, uso gorria, dantzan dabil suaren gain!*

MIKEL.- Ez du balio! Txoria esan dugu.

PATXO.- Usoa txoria da. Hegazti bat!

MUSIKARIAK.- *Hegazti errariak pausatu dira leihoan.*

MIKEL.- Ez...!

MUSIKARIAK.- *Txantxangorria naiz, gelako sapaian...*

MIKEL.- Ez! Txoria aipatu behar da, txoria hitza. Eta hamaika atera dituzue.

PATXO.- Itxoin! Bizkaiko aberatsak!

MIKEL.- Bizkaiko aberatsak??

MUSIKARIAK. - *Bizkaiko aberatsak dira diruzale
Txerri erosle eta txori...*

PATXO.- Hamabi!!!

Mikelek apustuaren dirua ematen dio Patxori.

MUSIKARIAK. - *...zo saltzaile!!*

10. ikasgaia: animaliak

MIKEL.- Ondo pentsaturik, ez da hain arraroa. Animaliak askotan agertzen dira euskal kantutegian. Animalien artean bizi gara.

Musikariek "Ni bizi naiz baserrian" jotzen dute.

MIKEL.- Denetarik dago.Urtxintxak.

Musikariek "Urtxintxak oihanean" jotzen dute.

MIKEL.- Baliak...

Musikariek "Baliaren bertsoak" jotzen dute.

MIKEL.- Zezenak

Musikariek "Pasaiaiko herritik" jotzen dute.

MIKEL.- Astoak.

Musikariek "Astoa ikusi nuen" jotzen dute.

MIKEL.- Katuak.

Musikariek "Katuena testamentua" jotzen dute.

MIKEL.- Eta tximeletak

Musikariek "Tximeleta reggae" jotzen dute.

MIKEL.- Eta bereziki txakurrak. Euskaldunok txakurra gizonaren lagunik onena dela erakusten dugu kantetan. Adibidez, Hertzainak-en kanta hau.

PATXO.- Hertzainak??

Musikariek "Si Vis Pacem" jotzen dute.

MIKEL ETA MUSIKARIAK.- *Egun guztia irauten duzu
zure kainoiari lotuta
beldurrak zaitu maskaratu eta
inork ez daki nor zeran
ez du inporta galant ederra
mundu guztiak izena dauka eta
zurea... TXAKURRA!!!*

Patxok musika isiltzen du.

PATXO.- (Publikoari) Barkatu.

Mikelengana doa.

PATXO.- Martinez doktorea. Gaizki-ulertu txiki bat egon da...

Patxok zerbait xuxurlatzen dio belarrira.

MIKEL.- Koño!

PATXO.- Ulertu duzu?

MIKEL.- ~~Polizia~~ Polizia dela gizonaren lagunik onena?

Patxok berriro azaltzen dio zerbait belarrira.

MIKEL.- Ah!!! Bale, bale... (...) Eta orduan, "Pintxo Pintxo"?

Musikariek "Pintxo pintxo" jotzen dute.

11. ikasgaia: aszensorean

MIKEL. - Milaka kanta daude gure kantutegian.

PATXO. - Eta galdetuko duzue, zertarako hainbeste?

MIKEL. - Esate baterako, aszensorean eguraldiaz hitz egi-
teko. Euskal musikari esker, ez da inoiz isilune ezeroso
hori gertatuko.

Patxo aszensorean dago, botoia sakatzekotan, eta Mikel sartzen da.

PATXO. - Ze pisutara zoaz?

MIKEL. - Berrogeita zortzira. Zu?

PATXO. - Berrogeita bederatzira.

Biek elkarri begira, hasperen egiten dute. Botoia sakatu eta as-
zensorea martxan hasten da.

OFF. - Ez dute ixiltasuna soportatzen. Baina bat-batean,
hor agertzen da euskal musika haien erreskatean.

Musikari bat "Itxasoa laino dago" jotzen hasten da.

PATXO. - *Itxasoa laino dago.*

MIKEL. - *Baionako barraraino.*

PATXO. - Aha...

MIKEL. - Aha...

Ixilunea.

Musikariek Gatiburen "Euritan dantzan" egiten dute tresnekin.

MIKEL. - *Eurixe da, ha, ha...*

PATXO. - *Bai nausia, euria da,
gure lurra bustia da.*

MIKEL. - *Goizeko euri artean...*

PATXO. - *Ez da euririk sartzen maitia,
ari ez duenean, ai ai ai.*

MIKEL. - *Esaiozu euriari, berriz ez jausteko!*

PATXO. - *Asteartea, euria goitik behera,
lanik ez egiteko...*

BIAK. - *Ez goaz lanera...*

Barre egiten dute, baina segidan berriro isiltasunaren tentsioa.
Erlojuari begirutzen diote. Tik-tak-tik-tak.
Musikari batek "Haize hegoa" (Laboa) jotzen du.
Hemendik aurrera, Mikel eta Patxo gero eta gustorago, gero eta
beroago.

PATXO. - *Haize hegoa, gau epela, ilargiaren argi.*

MIKEL. - *Joan zen uda, eta negua heldu da.*

PATXO. - *Ez nau izutzen negu hurbilak uda betezko be-
roan.*

MIKEL. - *Udaberri berririk ez guretzat!*

PATXO. - *Haizea dator ifarraldetik...*

MIKEL. - *Eguzkiak urtzen du goian gailurretako elurra.*

PATXO. - *Negua joan da ta...*

MIKEL. - *Hego berotik ekaitza.*

PATXO. - *Izotz ondoko eguzki, neguaren parre.*

MIKEL. - *Oi Baldorba, oi Baldorbaaaa!*

BIAK. - *Eguzki eta haize idor...*

Aszensorea gelditzen da.

PATXO.- Zure pisua. Heldu zara.

MIKEL.- Bai? Hain azkar??

PATXO.- Zuk presarik duzu?

MIKEL.- Ez.

PATXO.- Nik ere ez.

MIKEL.- Bagoaz ehungarren pisuraino?

PATXO.- Primeran!

Musikariek "Lau Haizetara" jotzen dute.

PATXO ETA MIKEL.- *Lau haizetara,
lau haizetara,
lau haizetaraaaa,
garajetikan,
atikora!!!*

12. ikasgaia: matematikak

MIKEL.- Euskal musika oso aproposa da aszensorean ego-
teko, baina matematikak eta euskal musika zeharo in-
konpatibleak dira.

PATXO.- Zergatik?

MIKEL.- Saiatu zaitetz kalkulu erraz bat egiten, euskal mu-
sika entzuten duzun bitartean.

PATXO.- Ez dut arazorik ikusten.

MIKEL.- Ezetz kalkulatu hiru zifratako batuketa erraz bat
minutu batean.

MIKEL.- Minutu batean? Hiru zifratakoa? Baietz!

MIKEL.- Lehengo bost euroak. Ea ba: 235 gehi 329. Den-
bora!

Patxo batuketa mentala egiten hasten da, numeroak buruz esa-
ten.

PATXO.- Bost gehi bederatzi... hamalau...

MUSIKARIAK.- *Hamalau atso tronpeta jotzen,
zazpi astoren gainean.*

PATXO.- Zazpi... ez, zazpi ez...

MUSIKARIAK.- *Zazpi Euskal Herriak bat egin dezagun...*

PATXO.- Bat? Ez, zazpi, ez hamalau, zenbat dira...?

MUSIKARIAK.- *Zenbat diran hamar diran
zenbat diran ikusi...*

PATXO.- Hamar?

MUSIKARIAK.- *Atzo atzo atzo,
atzo hil ziren hamar atso...*

PATXO.- Ea, hasieratik.

MUSIKARIAK.- *Bat bi hiru lau bat bi hiru lau...*

PATXO.- Ixildu!

MUSIKARIAK.- *Bost sei zazpi bost sei zazpi...*

PATXO.- Bederatzi gehi bat... joder, zenbat...?

MUSIKARIAK.- *Zenbat gera, lau bat,
hiru bost zazpi...*

PATXO.- Hiru ta lau...

MUDIKARIAK.- *Tirikitrauki
hiru ta lau dira zazpi.*

PATXO.- Beraz, azken numeroa lau da...

MUSIKARIAK.- *Lau lau lau, sardina bakalau...*

MIKEL.- Hamar segundo geratzen zaizkizu.

PATXO.- Hamar?

MUSIKARIAK.- *Hamar mar mar... Hamar mar mar...*

MIKEL.- Bost.

PATXO.- Bost?

MUSIKARIAK.- *Bost traineru joan ziren
patroi banarekin...*

MIKEL.- Denbora!!

PATXO.- Zenbat zen?

MIKEL.- Bostehun eta hirurogeita lau.

MUSIKARIAK.- *Bostehun eta
hirurogeita lau
ohe huts
samina zabaltzen.*

13. ikasgaia: itxaropen-telefonoa

PATXO.- Euskal musika tristea omen da. Hala dio jendeak.
Baina hori, adiskideak, topiko bat besterik ez da.

Irratian daude. Patxo esataria da. Mikel, irratira deitu duen hiritar bat.

PATXO.- Ez Dok Hiru Irratiko "Ez galdu Esperantza" saioa duzu hau, zuretzat, bizitzeko esperantza galtzen ari za-

ren horrentzat. Zurekin gaude, ez zaude bakarrik gau ilun eta triste honetan.

Telefono hotsa.

Musikariak jotzen hasten dira. "Triste bizi naiz eta".

PATXO.- Dei bat daukagu. Gabon.

MIKEL.- Gabon.

PATXO.- Esan, adiskide, nor zaitugu?

MIKEL.- Jon Ander, Bilbokoa.

PATXO.- Ah, Jon Ander! Diputazioko funtzionarioa, ezta?

MIKEL.- Bai...

PATXO.- Emazteak utzi eta hiltzeko gogoan zenuen joan den astean. Horrela jarraitzen duzu?

MIKEL.- Ez! Gainditu egin dut! Emazteaz ahazten hasi naiz!

PATXO.- Zoragarria, Jon Ander, bejondeizula. Bañuzu bizitzeko motibo asko, gizona, batez ere lanpostu zoragarri hori!

MIKEL.- Barkatu, beste kantutik jarri dezakezu?

PATXO.- Ez zaizu hau gustatzen?

MIKEL.- Bai, ederra da, baina gogora ekartzen dit *triste bizi-naizela eta hilko banintz hobe.*

PATXO.- Jesus, gizona! Ez duzu esan gainditu duzula?

MIKEL.- Oraindik *badaukat bihotzian hainbat atsekabe.*
Aldatu musika, mesedez!

PATXO.- Ados, eta barkatu zuk.

Beste musika bat jotzen dute. "Beti Penetan".

PATXO.- Beraz... Jon Ander... emaztearena burutik kentzen ari zara.

MIKEL.- Beno... *Egunez... zerbait alegratzen naiz.*

PATXO.- Ederto dago hori, gizona!

MIKEL.- Baina *gauez beti penetan! Beti penetan!!* Mesedez, ipini beste kanta bat!!!

PATXO.- Ah... Barka, nola ez! Eta segi.

Beste musika bat: "Oi ama Euskalerrri".

Mikel gero eta goibelago.

PATXO.- Esaten ari zinen, Jon Ander, emaztea ahazten ari zarela.

MIKEL.- Bai. Beragandik *urrun triste banoa.*

PATXO.- Triste triste ez, orain gainditzen ari zara depresioa.

MIKEL.- Musika aldatzen ez baduzu, ez dakit nik!

PATXO.- Jeseus! Temoso zaude musikarekin! Ea zer dugun hemendik.

Beste musika bat: "Ni hiltzen naizenean".

PATXO.- Beno... Hau musika alaia da, ez?

MIKEL.- Bai zera!!

PATXO.- Zer duzu orain buruan, gizona!

MIKEL.- *Hiltzen naizenean, nire emaztea ez dela nire ondoan egongo!!*

PATXO.- Ez, joan egin da. Urrutira. Baina gainditu egin duzu.

MIKEL.- Ez dakit ba!! Kendu musika hori!!

PATXO.- Zuk agintzen duzu.

Beste musika bat: "Aitormena".

PATXO.- Zertan ari ginen? Ah, zure emaztea. Esan, zelan sentitzen zara orain...?

MIKEL.- Ba egia esan... *Ez dira betiko garai onenak! Barea-ren ostean dator ekaitza! Uda berri berririk ez niretzat! Mesedez, kendu hori!*

PATXO.- Ados.

Beste musika bat: "Ixil-ixilik".

PATXO.- Musika aldatu dut, baina zuk hitz eman behar didazu tristura gainditzen saiatuko zarela.

MIKEL.- Saiatzen naiz... *Baina pasatzen naizenean bere leihopetik, negarra urteten zait begi bietatik!*

PATXO.- Baina adiskide, ez duzu bere leihopetik pasa behar. Ahaztu behar duzu.

MIKEL.- Horretarako deitu dut, joder, ahazteko!!

Beste musika bat: "Mendian gora".

PATXO.- Eta hortuko duzu, baina badakizu, Jon Ander, *mundua ez da beti jai, inoiz tristea ere bai.*

MIKEL.- Inoiz tristea?? Beti da tristea!! Beti!!

PATXO.- Animo, gizona!

MIKEL.- Baina nola nahi duzu animatzea horrela? *Nire bihotza txori negartiz bete da eta umorez hustu da!!!*

PATXO.- Ze hitz politak, Jon Ander!

MIKEL.- Agur betirako!

Mikelek bere burua hiltzen du.

PATXO.- Ez Dok Hiru Irratiko “Ez galdu Esperantza” saioa izan duzu hau, zuretzat, bizitzeko esperantza galtzen ari zaren horrentzat. Gaur berri pozgarri bat daukagu, gau honetan bertan bakante bat geratu da, Diputazioko funtzionario lanpostu bat. Ez galdu esperantza. Eta zuk, hiltzeko gogo duzun horrek, deitu eta azken bultzada emango dizugu. Orain, saioari amaiera freskoa emateko, kanta alai bat. Trikitixa. Aupa Maurizia!!

MUSIKARIAK.- *Hauxe da despedidea
despedida honen tristea
inork txarrik egin barik
haserre dauka jendia.*

14. ikasgaia: sexua eta musika

PATXO.- Argi dago euskal musikan denetarik dagoela.

MIKEL.- Denetarik!

MUSIKARI BAT.- Gauza bat izan ezik.

MIKEL ETA PATXO.- Zein?

MUSIKARI BAT.- Sexua. Euskal kantagintzan sexua eta erotismoa ez dira ia existitzen.

PATXO.- Inuxentea!

MIKEL.- Normala da. Gazteak dira. Oraindik ere malezia gabeko begirada daukate.

PATXO.- Euskal musika sexuaz blai dago. Baina jakin behar da lerro artean irakurtzen. Sexuari buruzko gai guztiak agertzen dira. Esate baterako, erekzioa.

MIKEL.- *Gora ta Gora beti. Altza Felipe trulalai.*

PATXO.- Kanpaia jotzea.

MIKEL.- *Beti penetan.*

PATXO.- Orgasmoa.

MIKEL.- *Irrintzi bat entzun da.*

PATXO.- Multi orgasmoa.

MIKEL.- *Bat bi hiru lau, bost sei zazpi.*

PATXO.- Menage a trois.

MIKEL.- *Amets, amets egin.*

PATXO.- Orgia.

MIKEL.- *Zenbat diran, hamar diran, zenbat diran ikusi.*

PATXO.- Intzestua.

MIKEL.- *Prima eijerra.*

PATXO.- Bestialismoa.

MIKEL.- *Pintxo, pintxo, gure txakurra da ta.*

PATXO.- Euskal musikarekin, sexuari buruz hitz egin daiteke ad infinitum.

MIKEL.- Simulazio bat egingo dugu.

PATXO.- Eszena labur bat, sexu arazo arrunt bati buruzkoa, gatillazoa.

MIKEL.- Guk hitzak ipiniko ditugu. Zuek osatu irudia zuen imajinazioarekin.

BIAK.- Nik gizonarena egingo dut!

Elkarri begiratzen diote.

MIKEL.- Beno, ba biok gizon.

PATXO.- “Ez dok Hiru” unibertsitateak aurkezten du: “*Hil da Katua*”, euskal gatillazoa.

Fondoko musika erotikoa.

MIKEL.- *Oh, Pello Pello, jinen niza oherat?*

PATXO.- *Hator, hator mutil etxera. (...) Hemen gaude eta postutzen naiz.*

MIKEL.- *Ta ziur zure gaita ere bai.*

PATXO.- *Emoiztazus musutxuek.*

MIKEL.- *Gero gero gero, gero gero bai. Ala... atera atera, trapuak...*

PATXO.- *Está muy bien, esaten du konfiteruak.*

MIKEL.- *Eta gu gaude erdi biluzik.*

PATXO.- *Eta zu goruntz begira.*

MIKEL.- *Hauxe duzu fandangua neure gustukua?*

PATXO.- *Hartuixu guruxun guztie.*

MIKEL.- *Txiki txiki txikia.*

PATXO.- *Hasi naiz handitzen.*

MIKEL.- *Maitia, nun zira, nik ez zaitut ikusten!!*

PATXO.- *Txikia izanik asko maite zaitut, nik.*

MIKEL.- *Altza Felipe trulalai!!*

PATXO.- *Hik bultza gogor hortikan ta bultza nik hemendikan. Ikusiko dek nola nola, laister...*

MIKEL.- *Haurtxo txikia sehaskan dago.*

PATXO.- *Orain galdurik nago beldurrez beteta, muniziorik gabe gelditu naiz eta.*

MIKEL.- *Negar egingo luke nere amak baleki.*

PATXO.- *Ez dakit zer pasatzen den azken aldi hontan.*

MIKEL.- *Gure asmoak, esperantzak... Mitoak, hitz hutsak?*

PATXO.- *Agian, agian, egün batez jeikiko...*

MIKEL.- *Agur Zuberoa.*

PATXO.- *Ez dira betiko garai onenak.*

15. ikasgaia: haurren kantak

PATXO.- *Ikasgai honetan, haurren musikari buruz hitz egingo dugu.*

MIKEL.- *Haurren kantak, ze politak! Ze kuttunak!*

BIAK.- *Kutxi kutxi kutxi...!!!*

Bat-batean serio jartzen dira.

PATXO.- *Ñeme-alabarik duzu?*

MIKEL.- *Ume txikiak, sehaska umeak?*

PATXO.- *Gau osoa esnaturik ematen duzu, umearen negarrekin, eta lanera zoaz batere lorik egin gabe, zure umea jada lo goxo dagoen bitartean?*

MIKEL.- Honek badu bueltarik.

PATXO.- Erabili euskal musika.

Mikelek umearena egiten du. Lo dago.

PATXO.- *Haurtxo txikia sehaskan dago*

Ama emaiozu titia.

Aita gaixtoa tabernan dago

Pikaro jokalaria.

Umea esnatzen da asaldaturik.

MIKEL.- Eh??

PATXO.- *Otsoak u u u u*

mendi gainetan ugari.

MIKEL.- Eh?

PATXO.- *Harrapatzen bazaitu,*

harrapatzen bazaitu...

MIKEL.- Zer??

PATXO.- *jo ta bertan hilko zaitu!!*

MIKEL.- Aita!!

PATXO.- *Aita- semeak tabernan daude...*

MIKEL.- Ama, ireki atea!!

PATXO.- *Zabalik badaukazu*

bertako atia,

galduko duzu eta

bigarren hankia

bai eta, bide batez,

zure hankartia.

MIKEL.- Nor dabil hor?

PATXO.- *Atoz, atoz, zure bila nenbilen ni.*

Atoz, atoz, zure bila nenbilen ni.

MIKEL.- Ama. Argia piztu!

PATXO.- *Zer izkututzen duen*

ez didanean ikusten

uzten...

MIKEL.- Zer gertatzen da?

PATXO.- *Din dan, nor hil da?*

MIKEL.- Nor?

PATXO.- *Zer egin dau pekatu?*

MIKEL.- Ezer ez! Ama!!!

PATXO.- *Zure ama hil da*

lanak itota,

zertarako dan bizitza

jakitera iritsi gabe.

PATXO.- Amatxo? Hilda?

PATXO.- *Ta ziur zure aita ere bai!*

MIKEL.- Nola?

PATXO.- *Dolü gabe, dolü gabe.*

MIKEL.- Ama!!!!

Umea negarrez hasten da.

PATXO.- *Zaude ixilik haurra, ez egin negarrik!!!*

MIKEL.- Lagundu!!!

PATXO.- *Handitzen zeranean ikusiko duzu ixilik egoteak*

zenbat balio dun!!!

MIKEL.- Amatxo!!! Aitatxo!!!

PATXO.- *Loa loa txuntxurunberde.*

Loa loa...

MIKEL.- Masustaaaaa!!!!!!

Musika bukatzen da.

PATXO.- Zure haurrak ez dizu lorik egiten uzten gauetz?

MIKEL.- Eta zu goizean, leher eginda, lanera abiatzen zarenean, umea lo goxo ikusten duzu bere sehaskan?

PATXO.- Larrutik ordaindu dezala. Erabili euskal musika.

MIKEL.- Loa loa...

DENAK.- Masusta!

16. ikasgaia: euskal musikaren poesia

MIKEL.- Oraingo atal hau, euskal kanta herrikoen letrei dedikatuko diegu.

PATXO.- Gure kanta herrikoen letrak! Ze aberatsak! Zenbat ñabardura fin!

MIKEL.- Tamalez, jendea ez da aberastasun horretaz konturatzen.

PATXO.- Denak ez dira musikologoak!

MIKEL.- Sentsibiltate berezia behar da...

PATXO.- Oso berezia!

MIKEL.- Esate baterako:

Biolontxeloak laguntzen du, poesia errezitalean bageunde lez.

MIKEL.- *Anteron txamarrotia,*

Singerren bibotia.

Harexek ei dauko

ei dauko,

preso tximinoia.

Isilunea.

PATXO.- Buah! Ileak tente!

MIKEL.- Ezta?

PATXO.- Buah!

MIKEL.- Eta zure iritziz zer esan nahi du?

PATXO.- Nola?

MIKEL.- Ea zer dioen.

PATXO.- Kanta honek?

MIKEL.- Bai.

PATXO.- Beno... Irakurketa anitzeko kanta da.

MIKEL.- Meta testuala.

PATXO.- Hori da.

MIKEL.- Baina konkretuki?

PATXO.- Konkretuki?

MIKEL.- Bai.

PATXO.- Beno... Bakoitzak bere irakurketa egin dezake.

MIKEL.- Dudarik gabe.

PATXO.- Hau da testu honen aberastasuna. Aniztasuna, multikontzeptutasuna...

MIKEL.- Baina pixka bat konkretatuz?

PATXO.- Konkretatuz? (...) Eh... Beno... Nire ustez...
Eh... Eh... Tximinoaren drama islatzen du. Tximinoak
gizakume izan nahi luke, baina ai!, urrun dago gizaku-
me izatetik! Tximino geratu da. Preso dago bere... txi-
minotasunean.

MIKEL.- Txipiroia.

PATXO.- Nola?

MIKEL.- Bizkaiko kostaldeko kanta da, eta tximinoia txipi-
roia da, ez tximinoia.

PATXO.- Ah! Ba arrazoi gehiagoz: txipiroia askoz urruna-
go dago gizakume izatetik!

MIKEL.- Txipiroiaren drama existentziala.

PATXO.- Drama existentzialei buruz ari garela, hona beste
hau:

Biolontxelo musika berriro.

PATXO.- *Urra txuntxulun berde
mesmeru mokordo,
Urra txuntxulun berde
mesmeru mokordo,
hortxe goian atso bat...
kaka egiten dago.*

Isiltasuna.

MIKEL.- Txundigarria!

PATXO.- Bai. Eta nola interpretatzen duzu zuk?

MIKEL.- Nik? Interpretatu?

PATXO.- Bai.

MIKEL.- Beno... (...) Nire ustez inportanteagoa da sujeri-
tzen duena esaten duena baino.

PATXO.- Azpittestua.

MIKEL.- Horixe. Lerro artean ezkututzen dena.

PATXO.- Hala ere, irudi txundigarria da amona gaixo
hura...

MIKEL.- Gaixoa, bai...

PATXO.- Hor goian, bere bakardadean...

MIKEL.- Kaka egiten...

PATXO.- Kaka egitearena lizentzia literario bat da!

MIKEL.- (...) Jakina.

PATXO.- Berez ez dago, noski, kaka egiten.

MIKEL.- Noski.

PATXO.- Zera dago...

MIKEL.- Horixe... Zera dago...

PATXO.- Argi dago.

MIKEL.- Guztiz argi.

PATXO.- Drama existenzial latza.

MIKEL.- La solitude!!

PATXO.- ~~La~~ decadence!!

MIKEL.- Honek burura dakarkit... Mari Andresen drama
lazgarria.

PATXO.- Oh!!

Biolontxeloaren musika.

MIKEL. - *Mari Andresaren
Mari Andresaren
korotza...*

PATXO. - *zazpi libra ta
zazpi libra ta
bost ontza.*

Biak emozionaturik daude, negar egiteko gogoaz.

MIKEL. - *Harek egiten dau
harek egiten dau
demasa:*

PATXO. - *epel-epel,*

MIKEL. - *lodi-lodi,*

BIAK. - *Punta motza!*

17. ikasgaia: euskal musika eta sistema judiziala

PATXO. - Esan dugu lehen euskal musika errebeliarekin lotuta dagoela. Eta errebelia, justiziarekin lotuta dago.

MIKEL. - Eta justizia, epaiketekin lotuta dago. Ondorioz, epaiketak, euskal musikarekin lotuta egon beharko lirarteke. Euskal musikarekin, justizia oso desberdina izango litzateke.

PATXO. - Hobe? Zuzenagoa? Azkarragoa? Ez. Desberdina.

MIKEL. - Eta ez da gutxi.

PATXO. - Ni akusatua naiz.

MIKEL. - Ni abokatua.

ADRIAN. - Ni fiskala.

MARIA. - Ni takimekanografoa; eta alguazila; eta lekukoa; eta epaimahaia; publikoa.

IVAN. - Ni epailea. Eta epaiketa hastera doa.

Argi aldaketa. Epaiketa giroa.

Erdian akusatua. Bere ezker eta eskubian, fiskala eta abokatua.

FISKALA. - Zin dagizu egia esango duzula, eta egia baino ez?

AKUSATUA. - *Bai, zin dagizut, ez dizudala inoiz gezurrik esan...*

ABOKATUA. - Zu lasai egon. Ura edo nahi duzu...?

AKUSATUA. - *Ez, ez dut nahi, ez ez ez...*

FISKALA. - Egia da, irailaren bostean morora jaitsi zinela kostoa erosteko asmotan?

AKUSATUA. - *Egia da, egia da...*

ABOKATUA. - Protestatzen dut! Ezin dugu epaitu antezedenteak ezagutu gabe. Nire defenditua familia apal batean jaio zen!

AKUSATUA. - *Zazpi senideko familia batetan arotza zen nere aita.*

FISKALA. - Pariente aberats bat izango zueñ, denok bezala!

AKUSATUA. - *Osaba komertzianterik ez nuen izan Habanan.*

ABOKATUA. - Ez ba! Guztiz pobrea zen!

AKUSATUA. - *Bizi gera pobre eremu latz honetan...*

ABOKATUA.- Argi dago beraz...

AKUSATUA.- *Ez dugu zaldirik
ez gera zaldunak.
ez dugu abererik.
ez gera aberatsak.*

ABOKATUA ETA FISKALA.- (Moskeatuta) Baietz ba, pesao!

ABOKATUA.- Arratoiak baino pobreagoa zen. Eta hala ere zintzo izaten saiatu zen. Eskolan hasi zinen, egundoko ilusioarekin.

AKUSATUA.- *Goizetan pozik goaz ikastolara
gauza anitz ikastera.*

ABOKATUA.- Etorkizun bat eraiki nahi zuen.

AKUSATUA.- *Nik enkargatua izan nahi nuen...*

FISKALA.- Protestatzen dut, gimnasia ere suspenditzen zuen! Zelako bronkak etxean notak ematean...

AKUSATUA.- *Zai dago ama, zai aita...*

FISKALA.- Eta eskola utzi zuen, alfer honek...

AKUSATUA.- *Estudiante tunante baino hobe nuela...*

ABOKATUA.- Lanean hasi.

AKUSATUA.- *Oso goizetik lanean hasi...*

ABOKATUA.- Nire defendituak gogor...

AKUSATUA.- *...su eta keen artean.
Dinbilin danba gelditu gabe
gutziz ilundu artean*

*Arropa denak puskatzen eta,
osasunaren kaltean.*

FISKALA ETA ABOKATUA.- Baietz ba, pesao!

AKUSATUA.- Nire defendituak gogor egin zuen lan, lana zegoenean.

AKUSATUA.- *Guretzat berdin dira astea eta jai.*

FISKALA.- Horixe berdinak, zuretzat aste egun guztiak ziren jai: astelehenetan...

AKUSATUA.- *Jai ondoren alperra*

ABOKATUA.- Bai, baina asteartean...

AKUSATUA.- *Euria goitik behera.*

FISKALA.- Eta asteazkenean...

AKUSATUA.- *Osabaren ezkontza.*

ABOKATUA.- Dena den, ostegunean.

AKUSATUA.- *Amonaren eguna.*

FISKALA.- Eta ostiralean.

AKUSATUA.- *Haginetako mina.*

FISKALA ETA ABOKATUA.- Baietz ba, pesao!

ABOKATUA.- Normala gutxi lan egitea, kobratzen zuen miseriarekin.

AKUSATUA.- *Hiru babarrun jateagatik
horrenbeste neke pena.*

ABOKATUA.- Eta gainera lan istripu ugari.

AKUSATUA.- *Atzo atzo atzo
atzo hil ziren hamar atso.*

FISKALA.- Aitzakiak! Zergatik ez zenuen lanean jarraitu??

AKUSATUA.- Ez zaidazu galdetu gauza ilun guztien arrazoi gordea.

ABOKATUA.- Krisialdia etorri zelako. Gauzak aldatu egin ziren!

AKUSATUA.- Nola aldatzen diren gauzak, kamarada!!

FISKALA.- Aurkitu nahi duenarentzat, lana badago.

AKUSATUA.- Non hago? Ze larretan?

ABOKATUA.- Hori da. Ezin da lanik topatu.

AKUSATUA.- Ez da posible, ezin liteke!!

FISKALA.- Bah! Alfer honek lan bat topatuko balu.

AKUSATUA.- Neria izango zen, ez zuen aldegingo.

ABOKATUA.- Noiz aurkitu zenuen azkeneko lana?

AKUSATUA.- Mila bederatzirehun ta lehenengo urtian.

FISKALA.- Gaztaroa alperrikaldu du alferrean.

AKUSATUA.- Uztaila hontan beteko ditut nik nahi baino urte gehio.

FISKALA.- Neskak utzi zuen, lanik ez zuelako.

AKUSATUA.- Maitiak galde egin zautan lana banuenentz...

ABOKATUA.- Eta zer esango zion ba?

AKUSATUA.- Agian, agian, egun batez...

FISKALA.- Bai zera! Saiatu ere ez zen egiten, juergan egoten zen egun osoan...

AKUSATUA.- Kalian gora kalia behera kalia gora kalia behera.

ABOKATUA.- Protestatzen dut! Nire defenditua lan bila ibiltzen zen...

AKUSATUA.- Edozein herriko jaixetan.

FISKALA.- Horixe! Txurrutean...

AKUSATUA.- Ardoa edanda mozkortzen naiz.

ABOKATUA.- Beno, akaso edan apur bat, baina drogarik ez...

AKUSATUA.- Alegratzeko triste dagoen guztia.

FISKALA.- Seguru eroriko zela egunero kanutoren bat.

AKUSATUA.- ...lau, bat, hiru, bost zazpi...

ABOKATUA.- Baina porroa bakarrik, speed eta kaka horiek sekula...

AKUSATUA.- Sarri sarri sarri sarri sarri sarri...

FISKALA.- Horixe, mundu guztiak hartzen ditu eta...

AKUSATUA.- Zuuuuk zergatik ez?

ABOKATUA.- Gizarteak bultzatzen zuen konsumitzera.

AKUSATUA.- Saldu nahi dizkiote
makailu bustiak
gauerdiko izarrak
eta eguzkiak
inor engainatzeko
nolako trastiak.

FISKALA.- Eta bere bizio guztiak pagatu ahal izateko, morora jaitsi zen.

AKUSATUA.- *Beloradora joango nauk
Beloradotik Malagara
Malagatik Zeutara
ta Zeutatik txironara*

FISKALA ETA ABOKATUA.- Baietz, ba, pesao!

FISKALA.- Harrapatu zintuzten.

AKUSATUA.- *Giltzapean sartu naute
poliki-poliki.*

ABOKATUA.- Eta komisaldegian tratu txarrak jaso zituen.

AKUSATUA.- *Ama jo egin naute mintza arazteko.*

FISKALA.- Protestatzen dut! Kartzelako medikuak ez zuen tratu txarrak aipatu. Bera...

AKUSATUA.- *Ixil-ixilik dago...*

ABOKATUA.- Jakina, kartzelako medikuak ondo daki.

AKUSATUA.- *Ixilik egoteak zenbat balio dun.*

FISKALA.- Protestatzen dut! Gizarte demokratiko batean bizi gara eta...

AKUSATUA.- *Bota dezagun demokrazia zeri askara.*

ABOKATUA.- Epaille jauna, epaimahaikideok. Ni gizon honen alde nago. Geratzen zitzaion diru apurra gastatu du nire defentsa ordaintzeko eta...

AKUSATUA.- *Dirurik ez baina izarrak gurekin daude.*

ABOKATUA.- Nola dirurik ez? Poltsa ederra zenuela esan zenidan.

AKUSATUA.- *Poltsa, poltsa banuela baina...*

ABOKATUA.- Nola?

AKUSATUA.- *... dirurik ez...*

ABOKATUA.- Zer?

AKUSATUA.- *... dirurik ez...*

ABOKATUA.- Dirurik ez???

AKUSATUA.- Ezetz ba, pesao!

ABOKATUA.- Eta ni denbora galtzen? Bila ezazu ofizioko abokatu bat eta utzi bakean!

AKUSATUA.- *Ez zaitez joan oraindikan, ez zaitez joan arren...*

ABOKATUA.- (Fiskalari) Ikusi duzu, ze fundamentu gutxi?

FISKALA.- Ez dago lotsarik!

AKUSATUA.- *Gure asmoak, esperantzak, herria, askatasuna, justizia, pakea...?*

FISKALA ETA ABOKATUA.- *Mitoak, hitz hutsak*

AKUSATUA.- Protestatzen dut! Justizia kakazahar bat da!

FISKALA ETA ABOKATUA.- *Baina Inon baiño alaiagoa izanen da!*

AKUSATUA.- *Ta zer? Ez da berdin!*

FISKALA ETA ABOKATUA.- *Inon baino alaiagoa izanen da!*

AKUSATUA.- *Ta zer? Ez da berdin!*

FISKALA ETA ABOKATUA.- *Inon baino alaiagoa izanen da!*

DENAK.- **TA ZER EZ DA BERDIN!**

Azkenean denok jotzen dute. Patxok panderoa ematen dio Mikeli. Honek eskertzen dio. Patxori laster damutzen zaio.

18. ikasgaia: Eman da zabal zazu

Mikel poz-pezik dago besteekin jo duelako.

MIKEL Buah! Subidoia, subidoia!! Goazen beste bat jozera denok batera. Arin-arin bat.

Panderoan arin-arinaren erritmoa markatzen du.

MIKEL.- Pa-ta-ta-pa-ta-ta-ta-pa-ta-ta-ta...

Patxok panderoa kentzen dio.

PATXO.- Lastima, Martinez doktorea, ez dago jada astirik!

MIKEL.- Lastima!

PATXO.- Bukatu behar dugu seminarioa.

MIKEL.- Ah...

Patxo pentsakor.

MIKEL Zer gertatzen zaizu?

PATXO.- Zera... pentsatzen ari nintzen...

MIKEL.- Nik ere pentsatu nuen, behin...

PATXO.- Euskal musikarik ez balego, non egongo lirateke gure kantak?

MIKEL.- Oh... Ba... ezerezean, izarren hautsean... Goiko mendian... Ilargia erdian... Lau haizetara...

PATXO.- Edo agian beste nonbait birrenkarnatuko ziren... Eta beste herri batzuek kantatuko lukete, beste hizkuntza batean...

MIKEL.- Imajinatzen duzu, Oskorri Kansas City-koa baltiz?

"Furra Furra" jotzen dute Country-bluegrass estiloan.

MUSIKARIAK.- *This morning i woke up
feeling very lucky,
because i have found a tank
inside of my cofee.
I dont 't konw what 's what we have,
if we are in peace or war,
but just in case, anyway,
I will throw a fart.*

PATXO.- Eta Pantxoa eta Peio Sizilian jaio izan balira...?

"Itziarren Semea" jotzen dute Italiar estiloan.

MUSIKARIAK.- *Il figlio di Itziar e un bravo ragazzo,
il suo coraggio non e cosa di lazzo.
Signorina Marieta puo sentire emozione,
quando il giovane bambino esce di la prigione.
Signorina Marieta, e un bravo ragazzo,
il suo coraggio non e cosa di lazzo.*

MIKEL.- Eta Itoiz, Pariseko Cartier Latinoan...? -

"Lau teilatu", frantziar "chanson" estiloan jotzen dute.

MUSIKARIAK.- *Nous sommes ici, et je suis heureux
et bien sûr ton père aussi.
Mais dites-moi, parle-moi maintenant
a propos de ton foulard blanc.
Dessus de quatre toits,
la lune, moi et toi,
et te regardant en haut.
Ta fumée dans ta main
un petit poussée soudain,
Il viendra près de moi.
Et encore, nous aurons*

*du bonheur
dans les fêtes de n'importe quel village.*

MIKEL.- Xabier Lete Rio de Janeiron jaio izan balitz...?

"Xalbadorren heriotza" jotzen dute Bossa nova estiloan.

MUSIKARIAK.- *Onde você está,
em que prado,
pastor do Ipanema.
Para cima das montanhas,
escapando silencioso
a memoria do futuro...*

MIKEL.- Eta Agur Jaunak Alabamako kotoi soro batean?

"Agur Jaunak" Godspell estiloan kantatzen dute.

DENAK.- *Goog bye, old Friends
Old Friends good bye
Good bye... AND A HALF!*

19. Despedidea

PATXO.- Gure seminarioa bukatzera doa. Joan baino lehen jakin ezazue zuen iritziak jasotzeko prest gaudela.

MIKEL.- Feed-back-a.

PATXO.- www.ezdokir...

Mikelen telefonoa txistuka hasten da.

MIKEL.- Azkarrak! Hiru mezu jaso ditugu jada.

PATXO.- Hiru atsegin?

MIKEL.- "Atsegin"...! Gure ikusleak ez dira nire krema hidratatzailea bezain topikoak. Esate baterako, lehenengo honek, ikono berri bat eskaini digu. Ez nuen ezagutzen.

PATXO.- Nolakoa da?

MIKEL.- Ba... Epel-epel, lodi-lodi, eta punta motza.

PATXO.- Interesgarria. Eta zer esan nahi du zure ustez?

MIKEL.- Beno... irakurketa anitzeko mezua da.

PATXO.- Hala uste dut nik ere. Eta besteak?

MIKEL.- Bigarrena soka bat da.

PATXO.- Soka bat?

MIKEL.- Bai, soka bat, lepo baten inguruan.

PATXO.- Irakurketa... anitza?

MIKEL.- Oso anitza.

PATXO.- Eta azkena?

MIKEL.- Unibertsitateko errektorearena.

PATXO.- Eta ze ikono bidali du?

MIKEL.- Ez da ikono bat. Testu bat da. "Kalean zaudete. Bildu zuen gauzak eta joan zaitezte por kulo hartzera".

Ixiltasuna.

PATXO.- Beno, ez da oso esplizitua.

MIKEL.- Ez.

PATXO.- Sugerentea, baina...

MIKEL.- ...iluna aldi berean.

PATXO.- Irakurketa...

MIKEL.- ...anitza.

PATXO.- Erabat.

MIKEL.- Eta gainera, beti geratuko zaigu unibertsitate pribatua.

PATXO.- Hau zen unibertsitate pribatua.

MIKEL.- Ah...

PATXO.- Errektore jauna, antza denez, ez duzu ikastaro honen izpiritua ondo jaso.

MIKEL.- Lerro artean dagoen mezua.

PATXO.- Argiago azalduko dugu, ea oraingoan ulertzen duzun. (Musikoei) Musika epikoa, mesedez.

Musikariek "Izarren Hautsa"-ren moldaketa bat jotzen dute.

PATXO.- Gure herriko musika defendituko dut
You Tuberen kontra
Spotifyren kontra
Arrakasta Ebakuntzaren kontra...

MIKEL.- Arrakasta Ebakuntza?

PATXO.- Operación Triunfo.

MIKEL.- Ah!

PATXO.- Defendituko dut
gure herriko musika.

MIKEL.- Galduko ditut
lanpostua,
paga extrak
eta oporrak,
galduko ditut

trienioak,
dietak
eta Benidormerako Inersoko bidaiak,
baina gure herriko musika
defendituko dut.

PATXO.- Gitarra kenduko didate
eta ukelelearekin defendituko dut
gure herriko musika.

MIKEL.- Ukelelea kenduko didate
eta turutarekin
defendituko dut
gure herriko musika.

PATXO.- Turuta kenduko didate
eta ahotsarekin defendituko dut
gure herriko musika.

MIKEL.- Ahotsa kenduko didate
eta esofagoarekin defendituko dut
gure herriko musika.
Esofagoa kenduko didate
eta eskrotoarekin defendituko dut...

Patxok hainbeste ez "motibatzeko" keinua egiten dio.

MIKEL.- ...gure herriko musika.
Ni mutu geratuko naiz

PATXO.- Nire esofagoa galduko da

MIKEL.- Nire eskrotoa galduko da

PATXO.- Baina gure herriko musikak iraunen du

BIAK.- Zutik.

"Izarren hautsa" musikak jarraitzen du, eta Patxo eta Mikel kantuan hasten dira.

PATXO ETA MIKEL.- *Izarren hautsa egun batean*

*bilakatu zen bizigai,
hauts hartatikan uste gabean
noizpait giñaden gu ernai.
Eta horrela bizitzen gera
sortuz ta sortuz gure aukera
atsedenik hartu gabe:
lana eginaz goaz aurrera
kate horretan denok batera
gogorki loturik gaude.
Gu sortu ginen enbor beretik
sortuko dira besteak,
burruka hortan iraungo duten
zuhaitz-ardaxka gazteak.*










Musika "in crescendo" doa.

Mikel panderoa hartzera doa, baina kentzen diote, eta aulki batean lotzen dute, galoen herrixka mitikoan bardoa lotzen zuten moduan, amaierako festa musikala ospatzen den bitartean.

Aurkibidea

Entzun kantutegia

Aitzinsolasa	7
 1. ikasgaia: tesiaren aurkezpena	11
http://bit.ly/ezdokhiru-1ikasgaia	
 2. ikasgaia: Izturitzeko txirula	14
http://bit.ly/ezdokhiru-2ikasgaia	
 3. ikasgaia: euskal tresna tradizionalak	18
http://bit.ly/ezdokhiru-3ikasgaia	
 4. ikasgaia: Erdi Aroko musika: baladak	20
http://bit.ly/ezdokhiru-4ikasgaia	
 5. ikasgaia: euskal musika barrokoa	25
http://bit.ly/ezdokhiru-5ikasgaia	
 6. ikasgaia: Iparragirre eta Xepelar	27
http://bit.ly/ezdokhiru-6ikasgaia	
 7. ikasgaia: kantautorea eta Ez Dok Amairu	29
http://bit.ly/ezdokhiru-7ikasgaia	
 8. ikasgaia: zentsura politikoa	32
http://bit.ly/ezdokhiru_8ikasgaia	
 9. ikasgaia: txoriak euskal musikan	35
http://bit.ly/ezdokhiru-9ikasgaia	

 10. ikasgaia: animaliak	38
http://bit.ly/ezdokhiru-10ikasgaia	
 11. ikasgaia: aszensorean	40
http://bit.ly/ezdokhiru-11ikasgaia	
 12. ikasgaia: matematikak	42
http://bit.ly/ezdokhiru-12ikasgaia	
 13. ikasgaia: itxaropen-telefonoa	44
http://bit.ly/ezdokhiru-13ikasgaia	
 14. ikasgaia: sexua eta musika	48
http://bit.ly/ezdokhiru-14ikasgaia	
 15. ikasgaia: haurren kantak	51
http://bit.ly/ezdokhiru-15ikasgaia	
 16. ikasgaia: euskal musikaren poesia	54
http://bit.ly/ezdokhiru-16ikasgaia	
 17. ikasgaia: euskal musika eta sistema judiziala	58
http://bit.ly/ezdokhiru-17ikasgaia	
 18. ikasgaia: Eman da zabal zazu	66
http://bit.ly/ezdokhiru-18ikasgaia	
19. Despedidea	68

Patxo Telleria

Aktore eta autore enblematiko hau, gazte-gazterik hasi zen ofizioan. Eskolaurrean, Gabonetako antzezlan batean, arbolarena egin zuen, arrakasta handia lortuz, hala publiko nola kritikarena. Ondorioz, arbolaren paperean enkasillatu zen. Profesional gisa *Eloisa almendrondo baten azpian dago* antzezlanean hasi zen, almendrondoaren paperean. Geroko lanak dira: *Gereziondoen Lorategia*, *Gernikako Arbola*, *Alamo-ko bataila* eta *Urkatuaren arbola*, besteak beste.

Autoretzaren eremuan ere erroak bota nahi eta teatro idazle bihurtu zen. Iaz, Idazleen Elkar-teak dirusari bat eskaini zuen, hil ala bizirik aurkitzen zuenarentzat.

Geroztik, Bilboko parkean bizi da, magnolioz kamuflaturik.



Zenbat euskal kanta ezagutzen dituzu, zahar edo berri? Kalkulua egin duzu inoiz? Ziur gaude uste duzuna baino askoz gehiago direla.

Ikuskizun honetan berrehun baino gehiago agertzen dira (zatiak, noski!) eta, denak ez bada gehienak, ezagun egingo zaizkizu.

Kanta kopuru ederra erabili dugu, baina aipatu gabe utzi ditugu beste hainbeste kanta eta musikari. Horiek ere estimatzen ditugu, lan honetan tokirik aurkitu ez badute ere.

Gure musika ondarea altxor bat da, gure memoria historikoaren lekuko emozionala.

Ez Dok Hiru kantutegian oinarritutako ikuskizun teatrala da. Gure modukoa, eroa, deskontzertantea, irrigarria azalez... Baina azal horren poro bakoitzari geure musikarekiko maitasuna dario.

Kanta ezagun batek dioen bezala:

*Izarren hotsa egun batean
bilakatu zen kantagai,
soinu hartatik uste gabean
noizbait giñaden gu ernai.
Eta horrela bizitzen gera
kantuz ta kantuz gure aukera
sekulan isildu gabe.
Musika eginez goaz aurrera,
konpas horretan denok batera
gogorki loturik gaude...*

...edo antzeko zerbait.

Kantutegia entzungai

ISBN: 978-84-9027-714-0

